# Farmazia Fakultateko Plan Estrategikoa
# 2022-2026

Unibertsitatearen eginkizuna edo misioa da gizartea jakintzaren bitartez hobetzea. Hortik abiaturik, Farmazia Fakultatearen eginkizuna da, UPV/EHUko ikastegia den aldetik, osasun zientzien arloko eta arlo zientifiko-teknologikoetako jakintza sortu, garatu eta transmititzea, arlo anitzeko ikusmoldeaz, eta betiere gure kulturarekin, erronka sozialekin eta garapen jasangarriarekin konprometiturik.
Fakultatearen ardura da ikasleei prestakuntza integrala ematea eta haiengan jarrera kritikoa eta konpromiso etikoa garatzea, zientzialarien eta profesional kualifikatuen kolektibo bat sortzeko. Horretarako, kalitateko irakaskuntza erabili behar du, ikasleen testuinguruari aplikatutako metodologiak baliatuz, inpaktu handiko ikaskuntza aukerak sortuko dituztenak.

Planaren ikuspegiak zehazten du zein helmugatara iritsi nahi dugun plan estrategikoaren indarraldia betetzen denerako. Ikuspegiak erronkak proposatu behar ditu, baina, aldi berean, neurgarria eta lorgarria izan behar du. Helburu operatiboak dira planaren indarraldian lortu behar diren gauzak. Farmazia Fakultatearen ikuspegiak osagai hauek ditu:

1. Ikasleak bultzatzea beren hezkuntza prozesuan eta garapen pertsonalean gehiago parte hartzera eta rol aktiboagoa izatera, inplikazio soziala ere izanik.

2. Irakaste eta ikaste prozesuen kalitatea eta inpaktua hobetzea.

3. Fakultatea jakintzak eta kulturak trukatzeko gune izatea.

4. Fakultateko langileek baldintza egokiak izatea bere bide profesionalean aurrera egiteko, lan ingurune seguruetan.

5. Jasangarritasunaren aldeko kontzientzia bultzatzea, baliabideen erabilera ekitatibo eta arduratsuaren bidez.

6. Ahalegintzea gizarteak ezagutu eta aitor dezan fakultateak gizartearen garapen hobearen alde egiten duen lana.

Horretarako, Farmazia Fakultatea saiatuko da honako balio hauek zaintzen:
1. Pertsonen arteko berdintasuna.
2. Pentsamendu-askatasuna.
3. Pentsamendu kritikoa.
4. Tolerantzia.
5. Gizartearen premiak asetzeko nahia.
6. Komunikazio eta gardentasunerako borondatea.
7. Zintzotasuna, konpromiso etikoa eta erantzukizun partekatua.
8. Ingurumenari lotutako balioen errespetua.

ARDATZ ESTRATEGIKOA: 1. Irakaskuntza eta ikaskuntza

## HELBURU ESTRATEGIKOA: 1.2. Titulazioak 822/2021 Errege Dekretura egokitzea.

| | |
|---|---|
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 1.2. Titulazioetako gaitasunak, ikaskuntzaren emaitzak eta edukiak eguneratzea.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/07/20<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |

## HELBURU ESTRATEGIKOA: 1.3. Ikasleen ikuspegia kontuan hartzea ikasketen etengabeko hobekuntzarako.

**Adierazle estrategikoak:**

Gogobetetze inkesta.

Ikasleek egindako aldaketa proposamenen kopurua.

| | |
|---|---|
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 1.3.1. Ikasketak amaitu dituzten ikasleen inkesta.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/07/20<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 1.3.2. Ikasleen ikuspegia kontuan hartzea etengabeko ikasketen hobekuntzarako.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/07/20<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |

## HELBURU ESTRATEGIKOA: 1.4. Metodologia berritzailerik egokienak zabaltzea.

**Adierazle estrategikoak:**

Gogobetetzearen adierazlea: "Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkesta" ataleko itemak, irakasgaia amaitzean ikasleek betetzen duten inkestakoak.

Prestakuntza hartzen duten irakasleen kopurua.

Metodologia berritzaileetan oinarritutako irakasgaien ehunekoa titulazio bakoitzean.

Emaitza akademikoak: ikasleek ikasturteetan zehar lortutako azken kalifikazio globalak.

| | |
|---|---|
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 1.4.1. Elkarrizketak eta tailerrak egitea irakaskuntza berrikuntzarako metodologia darabilten irakasleekin.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/07/21<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 1.4.2. Ikasleen gogobetetze datuak eta emaitza akademikoak aztertzea metodologia aktiboak erabiltzen hasi aurretik eta ostean.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/07/21<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 1.4.3. Irakasleen prestakuntza adostea HELAZekin.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/07/21<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |

## HELBURU ESTRATEGIKOA: 1.5. Graduondoko ikasketen eskaintza indartzea.

**Adierazle estrategikoak:**

Graduondokoetan matrikulatutako ikasleen kopurua.

## ARDATZ ESTRATEGIKOA: 1. Irakaskuntza eta ikaskuntza

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: 1.6. Ikasleen mugikortasuna sustatzea.** | **Adierazle estrategikoak:**<br>Mugikortasun programen bidez estatuko unibertsitateetatik etorritako ikasleen kopurua.Mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleen kopurua.<br>Hitzarmen berrien kopurua. |

| | |
|---|---|
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 1.6.1. Estatutuko beste unibertsitate batzuekiko harremanak estutzea.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/07/21<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 1.6.2. Mugikortasun hitzarmen berriak sinatzea (gradu bikoitzerako).**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/07/21<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 1.6.3. Topaketak/elkarrizketak egitea mugikortasun programen bidez kanpora joandako eta fakultatera etorritako ikasleekin.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/07/21<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 1.6.4. Mugikortasunari buruzko fakultatearen web orria berritzea.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/07/21<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: 1.7. Hizkuntza plana betetzea "Euskararen III. Plan Gidaria" Fakultatean.** | **Adierazle estrategikoak:**<br>Euskaraz eskaintzen diren hautazko irakasgaien ehunekoa.<br>Irakasle elebidun eta hirueledunen ehunekoa. |

| | |
|---|---|
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 1.7.1. Plaza elebidunak eta hirueledunak sustatzea.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/07/21<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 1.7.2. Euskaraz eskainitako hautazko irakasgaien kopurua handitzea.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/07/21<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |

## ARDATZ ESTRATEGIKOA: 2. Pertsonak

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: 2.1. Fakultatearen eginbeharrak modu orekatu eta gardenean banatzea.** | **Adierazle estrategikoak:**<br>Gogobetetze inkesta ikasturtearen hasieran eta amaieran (2022-2025).<br>Argitaratutako irizpideen arabera izendatutako kargu berrien kopurua.<br>Jarduera guztietan parte hartu duten pertsonen kopurua.<br>Transferitutako zeregin/jarduera/erantzukizunen kopurua.<br>Haiek betetzeko epeak.<br>Karguetarako pertsonak hautatzeko irizpideak web orrian argitaratzea. |

| | |
|---|---|
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 2.1.1. Laborategiko langileak: Praktiken egutegia egitea, 2-3 pertsonako lan taldeak sortzeko.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/06<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 2.1.2. Idazkaritza-dekanotzako langileak: TEKAZELen esku uztea lan administratiboak.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/06<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |

# Farmazia Fakultateko Plan Estrategikoa 2022-2026

ARDATZ ESTRATEGIKOA: 2. Pertsonak

**HELBURU ESTRATEGIKOA:**
**2.1. Fakultatearen eginbeharrak modu orekatu eta gardenean banatzea.**

| | |
|---|---|
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 2.1.3. Irizpide adostuak ezartzea karguak izendatzeko.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/06<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 2.1.4. Irakasleak: lanak eta erantzukizunak modu orekatuan banatzeko prozedurak ezartzea, GAURen grabatu zein ez eta JAPen aitortu zein ez.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/06<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA:**<br>**2.2. Fakultateko langile eta ikasleen segurtasuna sustatzea, bereziki laborategietan.** | **Adierazle estrategikoak:**<br>Segurtasun arloko prestakuntza hartu duten pertsonen kopurua.<br>Jokabide okerrengatik gertatutako istripuen kopurua. |

| | |
|---|---|
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 2.2.1. Fakultateko segurtasun protokoloak eguneratzea, sailen eta Prebentzio Zerbitzuaren laguntzaz.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/06<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 2.2.2. Egoera bakoitzaren premietara egokitutako segurtasun ikastaroak sustatzea eta haien berri zabaltzea.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/06<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA:**<br>**2.3. IRI berriei Fakultatera egokitzen laguntzea.** | **Adierazle estrategikoak:**<br>Gogobetetze inkesta (heldu eta hiru hilabetera). |

| | |
|---|---|
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 2.3.1. Harrera eta informazioa. Bisita ikastegian irailean eta urtarrilean.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/06<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA:**<br>**2.4. Ikasleen iritzia jasotzeko kanal berriak abian jartzea, fakultatearen funtzionamendua hobetzeko.** | **Adierazle estrategikoak:**<br>Jasotako iritzi/ekarpen kopurua. |

| | |
|---|---|
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 2.4.1. Iritziak jasotzeko plataforma digital bat sortzea eta haren berri zabaltzea.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/06<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: 2.5 Barruko komunikazioan euskararen erabilera handitzea.** | **Adierazle estrategikoak:** Urrezko BIKAIN ziurtagiria. |

# Farmazia Fakultateko Plan Estrategikoa 2022-2026

| | |
|---|---|
| ARDATZ ESTRATEGIKOA: 2. Pertsonak | |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: 2.5 Barruko komunikazioan euskararen erabilera handitzea.** | |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 2.5.1. Euskarazko ekimenak sustatzea.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/06<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |

| | |
|---|---|
| ARDATZ ESTRATEGIKOA: 3. Azpiegiturak eta baliabideak | |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: 3.1. Fakultatearen baliabideen banaketa ekitatiboa bultzatzea.** | **Adierazle estrategikoak:** Sortutako espazio berrien kopurua eta azalera. |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 3.1.1. Planoak eguneratzeko eskatzea, espazioen benetako erabilera aztertzeko ($m^2$/pertsona ratioa sail bakoitzean).**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/06<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 3.1.2. Erabilera anitzeko espazioak sortzea.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/06<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: 3.2. Elikagaiak prozesatzeko instalazioa berritzea.** | **Adierazle estrategikoak:** Hitzarmenen bidez jasotako sarrerak.<br>Instalazioa berritzeko proposatutako ekintza kopurua. |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 3.2.1. Berritze proiektu bat egitea instalazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko eta premien txosten bat egitea.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/06<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 3.2.2. Hitzarmenak sinatzea enpresa/erakundeekin ekipoak erosteko, jarduerak egiteko, proiektuak prestatzeko...**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/06<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: 3.3. Fakultatean kontsumo jasangarriagoa sustatzea.** | **Adierazle estrategikoak:**<br>Aurreztutako MWh/$m^3$. |

| | |
|---|---|
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 3.3.1. Berpiztea argindar/gas/ur kontsumoa eta bestelako kontsumoak gutxitzeko neurriak hartuko dituen taldea.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/06<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |

# Farmazia Fakultateko Plan Estrategikoa 2022-2026

| | |
|---|---|
| ARDATZ ESTRATEGIKOA: 4. Fakultateko bizitza eta gizartearekiko harremanak | |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: 4.1 Komunikazio bide berriak sortzea.** | **Adierazle estrategikoak:**<br>Farmazia Fakultateko Buletin kopurua. |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 4.1.1. Asteroko berripaper bat sortzea, albiste guztiekin.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/18<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: 4.2 Prestakuntza ekintza osagarrietarako tokiak bermatzea.** | **Adierazle estrategikoak:**<br>Antolatutako jarduera zientifikoen kopurua.<br>Pasabideetan ikusgai jarritako lanen kopurua. |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 4.2.1. Jarduerak antolatzea eta ordutegietan sortutako tartean programatzea.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/18<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 4.2.2. Ikasleei baimena ematea irakasgaietan egindako lanak pasabideetan ikusgai jartzeko.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/18<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA: 4.3. Harremanetan egotea fakultatetik irtendako tituludunekin.** | **Adierazle estrategikoak:**<br>Zerrendan dauden tituludunen ehunekoa. |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 4.3.1. Tituludunen zerrenda bat sortzea**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/18<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |

| | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA:**<br>**4.4. Gizartearekiko harremanetan euskarari lehentasuna ematea.** | **Adierazle estrategikoak:**<br>Urrezko BIKAIN ziurtagiria |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 4.4.1. Komunikazio oro lehendabizi euskaraz.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/18<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA:**<br>**4.5. Garapenerako lankidetza bultzatzea.** | **Adierazle estrategikoak:**<br>Lankidetza taldeetan parte hartzen duten pertsonen kopurua. |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 4.5.1. Lan taldeak sortzea.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/18<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |

# Farmazia Fakultateko Plan Estrategikoa 2022-2026

| ARDATZ ESTRATEGIKOA: 4. Fakultateko bizitza eta gizartearekiko harremanak | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOA:**<br>**4.6. Fakultatean egiten den ikerketa ezagutaraztea eta zabaltzea, bai Fakultate barruan zein gizartean.** | **Adierazle estrategikoak:**<br>Bertaratuen kopurua: barrukoak eta kanpokoak.<br>Hizlari kopurua.<br>Fakultatean egiten diren ikerketaren inguruko jardueren kopurua. |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 4.6.1. Jardunaldiak antolatzea Fakultatean egiten den ikerketa ezagutzera emateko.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/18<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |
| **HELBURU ESTRATEGIKOA:**<br>**4.7 Kanpoko eragileekiko loturak (enpresa, ikastetxe, erakundeekikoak...) estutzea, eta lotura berriak eraikitzea.** | **Adierazle estrategikoak:**<br>Bertaratutako ikasleen kopurua.<br>Parte hartu duten kanpoko pertsonen/eragileen kopurua. |
| **EKINTZA ESTRATEGIKOA: 4.7.1. Enpresa eta erakundeetako ordezkariek parte hartzea laneratzeari buruzko jardueretan.**<br>**Emaitzak:** | Hasiera data: 2023/09/18<br>Egoera: irekita<br>Itxiera data: |